

# Lagundu landa-eremu biziari zure dietarekin

me  
huda  
tierra!

Ba al dakizu?



Bisitatu  
gure  
Web!

[menudatierra.eco](http://menudatierra.eco)



Espanian, bada oso jende gutxi bizi den eremurik; biztanleriaren % 2 500 biztanletik beherako udalerrietan bizi da. Hori lurraldearen % 28 da.



Nekazaritza beti izan da gizonen sektorea; nekazaritza-ustiategien % 30 besterik ez dago andreen esku. Hala ere, ekoizpen ekologikoan emakume gehiagok jarduten dute.



Landa-mundu bizia izatea ahalbidetuko duten formula berriak behar dira, eta landa-eremuen eta hirien arteko harreman estua sustatzea. Horrela, gazteak landa-eremuetan geratzea eta pertsona orok kalitateko elikadurarako eskubidea bermatuta izatea ziurtatuko dugu.



LIFE HEALTHY PLANET DIET está cofinanciado con fondos de la Unión Europea a través del Programa LIFE (LIFE 20/NGO4GD/ES/0003)



# Zer egin dezakezu?



1

Kontsumi itzazu produktu ekologiko eta hurbilekoak.



2

Bila itzazu hurbileko kanal laburrak zure erosketak egiteko: azokak, ekoizleak zuzenean, auzoko dendak, denda espezializatuak, nekazaritza-dendak...



3

Eros itzazu jatorri-deitura babestua duten elikagaiak.



4

Informa zaitez eta eska iezaezu zure ordezkari politikoei tokiko ekoizleei eta haien produktuen salmentari kanal laburren bidez laguntzeko sistemak susta ditzatela.



5

Lagun iezaezu zure eskualdean elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko bestelako sistemak garatu nahi dituzten ekimenei, hala nola kontsumitzaile-kooperatibei, nekazariei, nekazaritza-merkatuei eta supermerkatu kooperatiboei.



6

Jatetxeetan, galde ezazu eta kontsumi itzazu tokiko produktuak.



Azkenaldiko krisiek agerian utzi dute elikadura-zaurgarritasuneko egoeran gaudela, eta premiazkoa eta beharrezkoa dela landa-eremuak hobetzea eta laguntzea.



Elikagaiak kanal laburren bidez saltzeak tokiko ekoizpenen garapena, produktuen merkatzea eta elikadura-sistemen iraunkortasuna bultzatzen ditu. Izan ere, merkaturatze-bide horiek ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko bitartekariak murrizten dituzte, eta, batzuetan, salmenta zuzenekoak izaten da.



Gero eta familia gutxiago aritzen da nekazaritzan, eta inbertsio- eta pentsio-funtsek, atzerritarrek batez ere, lur-eremu handiak hartzen dituzte, elikadura-burujabetza arriskuan jarrita.

Elikadura-burujabetza zer jaten dugun erabakitzeko eta kontrolatzeko kontsumitzaileen eskubidea da, nekazaritza-elikagaigintzak edo interes ekonomikoek horretan eraginik izan gabe.